




## 'Zirimolan' Kultur Hamabortzaldia: Azaroaren 21etik abenduaren 6ra

Azkaine, Bera, Etxalar eta Sarako kultur elkarten artean antolatu da kultur hamabortzaldia, aurtengoan *Zirimolan* izena eramanen duena. Euskal kulturaren kariatarat, teknologia eta komunikabide berriak, filmak, kontzertuak, herriarteko jokoak... denetarik izanen da herri horietan.  3

## 28 Kirolak: Doneztebeko Erremonte Eskola

Iñaki Lizaso erremontelari profesionala dute irakasle, eta berak kontatu digunez, Baztan eta Bortzirietako gazteak ere animatu nahi lituzke eskola honetan matrikulatzera.


## GEHIGARRIA: Lesakako Feriak azaroaren 18-19an

Egitaraua erdiko orrialdeetan.

**TTIPI-TTAPA ZOZKETA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETAN parte hartzeko boletok irabaziko dituzu.



## BERAKO FUNDIZIOETAN NAGUSI BERRIAK




# Kapitalaren % 51 erosiko du SAVERAK

Nafarroako Gobernuak orain dela bortz urte erosi zuen Funvera, krisi larrian zegoenean. Garai hartan ez omen zegoen bertze aterabiderik: 1917an sortua zen lantegi zaharra behin betiko itxi, edo bertzenaz, lanposturik ez galtzeko, Gobernuak bere gain hartzea lantegia. Zorionez Nafarro-

## Azken bortz urteotan Nafarroako Gobernuaren esku egon da FUNVERA

ako Gobernuak egin zen lantegiaren jabe eta ordutik honat nabarmenki aldatu dira kontuak. Lauretan hogeitangile izatetik doblea izatera pasatu da eta urteko salmenten fakturazioa ere haundi-

tu egin da. Iaz, aspal-diko partez, irabaziak izan zituen Funverak. Gauzak horrela, Funvera bere gisa ibiltze-

ko gauza dela uste du orain Nafarroako Gobernuak eta kapitalaren % 51 Berako Saverak erosteko tratua kasik itxia du. Geroago, falta dena bertze sozio bati salduko omen dio.  4



## DATUAK.....

❖ Etxalar, Bera, Azkaine eta Sara. Lau herri horietan eginen dira aurtengo kultur egunak, azaroaren 21etik abenduaren 6ra.

❖ Euskal kulturaren aitzakian, mugaz bi aldeetako jendeen harremanak sendotzea da antolatzaileen gogoia.

❖ Komunikabide eta teknologia berriak dira aurtengoan protagonista, baina bertze gaiek ere badute beren txokoa: zinea, kontzertuak, herriarteko jokoak... nahasketa horretatik dator 'Zirimolan' izenburua.

❖ Ongi haste-ko, asteburu honetan Euskal Herri osoko antzerki talde amateurak bilduko dira Saran. Bortz antzerkilarik es-  
kainiko dituzte.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
ASIER GOGORTZA

👉 **Zirimolan** Kultur Hamabortzaldiaren antolatzaileak

## "Hemen menditar-tean ziber-kafe bat antolatzea iraultza ttiki bat da"

### NONDIK NORA ZIRIMOLAN IZEN HORI?

Ez du zerikusirik Mitch delako horrekin, ez pentsa. Jendeari eskaintzeko kultur aktibitate interesgarri pila bat pentsatu genituen hasieran, itxura batean elkarren arteko loturarik gabekoak, baina kontua da zirimola hortan gauza aunitz atxeman daitekeela: ohiko bertso-txistea, afaria, mintzaldiak... eta bertzetik gauza berriak ere bai, antzerki-lari amateurren topaketa eta ziber-kafe adibidez.

### IAZ KULTUR HILABETEA ETA AURTEN, BERRIZ, HAMABORTZALDIA. ZER-GATIK LABURTU DUZUE?

Alde batetik nekagarria delako hilabete oso batez ekitaldiak antolatzea, eta bertzetik intentsiboagoa egin nahi genuen. Hamabost egun dira, bai, baina astetartean ere ekitaldiak proposatu ditugu, ez asteburutan bakarrik. Asteburutan ekitaldi pilaketa haundia izaten baita bertzelera ere.

### BATEZ ERE TEKNOLOGIA ETA KOMUNIKABIDE BERRIAK HARTU DITUZUE HIZPIDE...

Bai, ziber-kafe, herri-telebistei buruzko mahaingurua... aurtengo gai nagusia teknologia berriena da. Pentsatzen dugu teknika berri horiek euskaraz baliatzea ez dagoela batere



«Kultur taldeetan aritzen garenok honi esker ezagutu dugu elkar».

gaizki, eta horregatik jendea mundu hortarat hurbilaztea da gure asmoa. Gainera, hirietan ezagunagoak izanen dira beharbada, baina hemen menditar-tean ziber-kafe bat antolatzea iraultza ttiki bat da gure utez.

### GUSTATU EDO EZ, INTERNETEN GARAIAZ BIZI GARA ETA...

Halaxe da, eta hemendik aitzinera euska-

razko komunikabideek teknologia berrietan burua sartu beharko dute pixkana-pixkana. Horregatik interneten aferra hau, erakusteko euskaraz ere egiten direla gauzak. Esperientziak erakutsi nahi ditugu, ez teoria hutsa.

### MUGAZ BI ALDEKO JENDEEN HARREMANAK ESZUTUZ DOAZILA NABARI DUZUE?

Bai. Bistan da kultur taldeetan aritzen garenok honi esker ezagutu dugula elkar. Baina horretaz gain, azaroaren 29an Etxalarren egi-


nen diren Herriarteko Jokoetan sortzen den giroak bai balio duela lagun berriak egiteko.

### KULTURA TRESNA EGOKIA DA ORDUAN LOTURA HORIEK ESTUTZKO?

Batez ere euskara da lotzen gaituena, batzuk ez baitakigu frantsesez eta bertzeek espainolez ere ez. Gainera, kulturaren arloan buruan muga bat baino gehiago badugu oraindik, izan ere kultur erreferentzia desberdinak ditugula nabaria da. Batzuk Espainia aldekoak eta bertzeek Frantziakoak.

► *"Aurtengo gai nagusia teknologia berriena da. Pentsatzen dugu teknika berri horiek euskaraz baliatzea ez dagoela batere gaizki"*





Berako Fundizioak lehen eta orain.  
1917an zabaldu zenetik hainbat  
gorabehera izan ditu lantegiak

SAVERAK KAPITALAREN %51 EROSIKO DU

# Berako Fundizioak berriro pribatizazioaren bidean

***Duela bortz urte, Berako Fundizioak krisi larrian zegoenean, erosi zuen Nafarroako Gobernuak. Bertze aterabiderik ez omen zegoen: administrazioak eskutik hartu edo 1917an sortu zen lantegia itxi. Orduetik honat nabarmenki aldatu dira kontuak. Langileen kopurua bikoiztu eta fakturazioa ere goiti egiten ari da. Iaz, aspaldiko urtetan lehen aldiz, irabaziak izan zituen Funverak. Nafarroako Gobernuak eskua askatzeko tenorea ailegatu dela uste du eta hasierako akordio baten arabera, kapitalaren %51 salduko dio Bera bertako Saverara enpresari. Epe ertainean, gainerakoa ere bertze sozio bati salduko omen dio Administrazioak.***

TESTUA: AITOR AROZENA

**S**avera eta Nafarroako Gobernua k prestatzen ari diren plangintza-aren arabera 600 edo 700 milioi pezetako inbertsioa ere egingen da Fundizioetan, dirutza horretatik 250 bat milioi, jubilazio eta aurrejubilazioak ordaindu eta zorrak ordaintzeko erabiliko delarik.

Nafarroako Gobernu eta Saveraren ustez, Fundizioak produkzioan eta enpleguan eragina izanen duen errekonbertsioa behar beharrezkoa du. Honela, Funveraren produkzioaren %75a sortzen duen kamioien




balaztak egiten segituko dute eta arlo honetan produkzioa bikoiztu egin nahi da, 5.500 Tonara ailegatu arte. Autoen sektorerako tortsiobarraren fabrikazioa, ordea, uzteko asmoa dute hiru urteren barrenean. Gaur egun, negozioaren %15a sortzen du aktibidade honek eta tresneria zaharkitua gelditu denez, inbertsio haundiak egin beharko lirateke lan honetan segitu nahi izanez gero.

## **Berrogeita sei langile soberan**

Aipatu behar da, aktibidade honek 46 langile enplegatzen dituela eta ez da balazten produkzioarako beharko direnekin inondik ere orekatuko. Soberan geldi-



**1917an sortu zen Fundiciones de Vera lantegia. 1989an hasi zen lehen aldiz behin behineko langileak hartzen eta gaur egun hiru langiletik bat egoera horretan dago. Bere negozioaren %53a Europan egiten du egun, eta urrunagoko herrialdeetako merkatuetara pausua ematea da Saveraren asmoetako bat, «krisi egoeretan konpainia egonkortzeko». Fundizioak sendotzea da, beraz, hasierako helburua.**







ORDEZKARITZA SINDIKALA			
Kandidatura	90ean	94an	99an
ELA	5	7	?
LAB	4	2	?

Hauteskunde sindikalak 1999ko martxoan eginen omen dira

Salmentei eta langile kopuruari dagozkion urteko datuak ez dugu eskuratzetik izan. Halere, 1993an krisi garaian zegoela, Nafarroako Gobernuak hartu zuenetik gaurko egunera, kopuruak nabarmenki hobetu direla ageri da. Behin behineko langileen kopuruak goiti egin badu ere, azken bizpahiru urteetan hogeit lagunetik goiti fijo egin omen dituzte.



**Koadroetan ageri diren datuak Berako lantegiari dagozkion dira. Savera taldeak, produkzio lantegi gehiago ditu Hernani eta Brasilen eta banatzaileak Argentina eta Italian eta bertze zenbait herrialdeetan. Produkzioaren lautik hiru munduan barna banatzen duela kontuan hartuz, delagazio gehiago zabaltzeko asmoak ere baditu Polonia, Israel edo Hong Kong bezalako herrialdeetan.**



\*Aurrikuspena

tuko diren langile hauen irteera, lantegiko komenioaren bitartez negoziatu beharko da.

## 81 urteko historia

Fundiciones de Vera (Funvera) lantegia 1917an eraiki zen. 1993an, krisi larriaren eraginez eta ez ixteko aterabide bakar bezala, Nafarroako Gobernuak erosi zuen. Ordutik honat, enpresa biziberritu da. Bortz urteotan 80 langile izatetik 155 izatera pasatu da, horietatik 105 finkoak eta 50 behin-behinekoak. Fakturazioak ere goiti egin du: 1993ko 500 milioietatik 1996ko 1.490 milioietara. Joan den urtean, diru sarrerak irteerak baino haundiagoak izan ziren lehen aldiz eta 35 milioiko mozkina lortu zuen Funverak.

Nafarroako Gobernuak, hasiera-hasieratik adierazi zuenez, egoera larriari aterabidea emateko egin zen Funveraren

jabe. Duela zenbait hilabete hasi ziren tratuan Saverarekin eta enpresa honetako ordezkariak erran dutenez, normalena ongi akautzea izanen da.

## Komenioa negoziatzen hasi dira Funverako langileak

Solasaldiak gibeleratu dira, Funverako langileak eta zuzendaritza azaroaren hasieran hasi baitira komenioa negoziatzen. Enpresak hiru urteko komenioa negoziatu nahi du, baina alderdi ekonomikoa 2000. urtea bitarte negoziatua dagoenez, zailtasunak egoten ahal dira. Soldaten egoera 1997an solastu zen eta horren arabera, krisi garaian langileek galdu zuten erosteko ahalmena berreskuratuko dute urteotan (1997an %1,3; 1998an %1,9; 1999an %2,48 eta 2000 urtean %2,48). Kopuru hauei, 1999 eta 2000 urtean produkzio sariak gehitu behar

zaizkie. Beraz, diru kontuetaz baino gehiago bertze gai batzuk eztabaidatuko dira komenioaren negoziazioan. Enpresa Komitearen arabera, kategoriak eta behin behineko langileen egoera aztertuko dira, gaur egun hiru langiletatik bat egoera hortan baitago.

## Bere produktuen dibertsifikazioa da Saverak bilatzen duena

Igogailuendako gidak egitea da Saveraren zeregin nagusia. Bertze bi lantegi ditu Brasil eta Hernanin eta banatzaileak Argentina eta Italian. Taldeak 8.000 milioi pezetako salmentak egin zituen iaz eta igogailuendako giden munduko merkatuan %25eko kuartara iristea espero du. Bitxikeri bezala, aipatu behar da Pariseko Eiffel Dorrea eta Malaisiako Petronas eraikuntza famatuetakoa igogailuek Berako lantegiko materiala du-

tela.

Duela hilabete terdi egin ziren kalitate jardunaldi batzuetan Alberto Quintas, Saverako zuzendari nagusiak aitzindu zuenez, dibertsifikazio plan batean sartuak daude. Funveran interesa dute, «produktu ona eta berezko teknologia duelakoz eta gurearen sektore desberdina delakoz» Quintasen erranetan. Halere, merkatu egiturari dagokionez, negozio berdintsuak omen dira: «Gurea bezala, Funveraren merkatua mundu mailakoa da. Bere produktuak Estatu Batuak, Europa edo Japonian egin eta saldu daitezke». Saverako Zuzendari Nagusiak, bi enpresen arteko osagarritasunik ez duela nahi ziurtatu zuen. «Savera eta Funverak bizimodu propioa eta independentea izanen dute, beraien harreman bakarria inbertsio talde berean sartuak egotea izanen da». ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

**Internet:**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

**e-mail:**

[ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

**Inprimategia:** Gertu.

**ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar...

te...



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Viagra salgai gure botiketean

#### Ez da afrodisiako bat, eta sexual estimulazioa beharrezkoa da



Joseph OIASO  
Sarako botikaria

Iparaldean Viagra salgai da urriaren 15etik, baina jendearen artean aipamenaren araberako interesa beharrezkoa da. Estudio batzuek diotenez gizonen %15ak, erekzio arazoak dituzte eta batzuetarako haundituz doa adinarekin.

Jakin behar da Viagra ez dela afrodisiako bat, eta sexual estimulazioa beharrezkoa dela eraginkortasuna agertzeko. Beraz, Viagra erekzio eskasiaren sendagailu bezala ikusi behar da bainan ondorio txarrak ere ekar ditzazke, bihotzeko eritasunak eta tentsio eskasa dutenentzat bereziki.

Baitezpadakoa da medikuaren ikustea jakiteko Viagra arriskurik gabe baliagarri den. Izan ere, bertze erremedio edo botika batzuekin ezin da Viagra hartu, trinitrina-ren familiakoekin adibidez. Beraz, medikuaren ordenantzarik gabe ez ditake eskuratu.

Bertzalde, Viagra hartzen duenak ez du pilula bat baino gehiago hartu behar egunean, eta ez da beti ongi jasana izaten, buruko minak, xoroldak, aurpegian gorridurak, bistaren arazoak edo bertze ere gerta ditzake. Launaka edo zortzinaka saltzen da eta badira hiru indarreko dosiak. Pilula bakarra 69 edo 96 libera artean gostatzen da eta aseguratzen ez du batere ordaintzen.

#### Sexualitatea ezin da genitaleetara bakarrik baztertu



Hito SAGASETA  
HAIZEAKO hezitzailea

Duela hilabete batzuk medikazio berri baten izena, Viagra hain zuzen, entzuten hasi ginela. Pastilla berri honen ondorioetako bat gizonaren zakilaren tentetze eta gogortzea izan da (nahiz eta hasiera batean beste helburu batzuetarako ikertzen hasia zen).

Prentsan, botika berri hau hartu ondoren gertatu den beste ondorio bat azaldu da: gizon batzuen heriotza. Automedikazioaren ondorioa seguraski, osasun arloko profesionalekin komentatu gabe eta inongo arazo fisikorik izan gabe hartzeagatik.

Gure gizartean, benetan zaila da sexualitateaz hitz egitea: sexualitateaz, plazerraz, gorputzaz (genitaleaz behintzat)... Sexualitateaz jaso izan dugun heziketa ixiltasuneko izan da: galderak egin eta ixiltzeko erantzun, galderen aurrean erantzun eza... Eta noski, ixileko giro honek zailtasunak dakartzkigu gure bizi afektibo-sexualean eta baita osasun arloko profesionalekin komentatu ahal izateko orduan ere!

Ziur zenbait gizonen duten gaixotasunengatik (diabetea, medularen zauriak...) Viagraren beharra izanen dutela, baina inolaz ere edozein gizonak!

Sexualitatea ezin da genitaleetara bakarrik baztertu, plazerra gorputz osoan landu baitaiteke.

#### Momentu honetan Viagra negozio bat da



Jabier ESKUBI  
Leitzarra

Kalean, periodikotan, telebistan, gauza asko aditu dugu Viagraren inguruan. Komunikabideetan ateratzen den guziarekin mito pixko bat egin da, eta dirua ateratzeko modu bat bihurtu da. Momentu honetan Viagra negozio bat da Viagra.

Nik uste behar duenarentzat oso positiboa dela Viagra eskura izatea, inpotenziaren arazoa haundia delako. Behartzekotan nik ere hartuko nuke, dudarik gabe.

Beste medikamentu askorekin gertatzen den bezala, honekin ere medikuek eraman behar dute erabateko kontrola, hori argi dago. Medikuek badakite noiz eman behar dioten medikamentu bat gaixoari.

Hala ere, gaur egun norberak bere sakeletik ordaindu behar du Viagra hartu nahi izan ezker. Alde horretatik, seguridade sozialean ez sartzea lotsagarria iduritzen zait.

Bestalde, medikamentu hau desmitifikatu egin behar da. Hagi-netako mina duzunean halako pastilak hartzen dituzun bezalaxe, ba kasu honetan ere bai, zergatik ez? Behar duenak hartu behar du eta behar ez duenak ez.



**ttipi-ttapa fundazioak**  
Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**  
• Asteleheneetik asteazkenea 9-13tara eta 16-20tara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**  
ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak



## BOTA BERTSOA

**Bortzirietako feriak****Aintzane GOIENETXE**

Neurria: Zortziko Haundia

*Lehengo urteko feriak baino  
aurten izanen hobiak  
ea ez digun izorratzen  
aurtengo hontan euriak  
bertan eukiko dituztelako  
gustoentzako begiak  
ezin hobeki pasako ttugu  
Bortzirietako feriak*

*Ortzegunean joanen gara  
gu guziok Lesakara  
eta zu ere etorri zaitzez  
kultur zalea bazara  
guk elkarrekin (eg)ingo ditugu  
hamaikatxo bat algara  
denetik egon ohi delako  
joan beharko da hara*

**Legea gezurra da**

Bai lagunak, legea gezurra da, euskaldunontzat bai behintzat. Joselu Etxeberriak duela bi urte aske egon behar zuen, legez, eta gartzelan segitzen du Galizan. Iosu Unshion orain dela urte bat bederen gure artean libro behar genuen, baina Madrilén dago. Iñaki Fagoagak Euskal Herrian egon behar zuen eta Cuencan dago, eskubiderik gabe, zigorraren barranean are zigortuagoa. Hauen pekatua Euskal Herriaren alde egitea da, eta hori ez dute barkatzen, badakigu, baina eta senideek zer pekatu egin ote dute eurek ere halako zigorra jasateko? Bidaiak, arriskua, dirua... bai lagunak, bai, legea gezurra da.

Baina gauzak mugitzen ari dira borondate oneko jendeari esker. Gaur egun, presoak ekartzea edo ez ekartzea egoera politikoaren arabera izanen dela erraten digute Madrildik eta guk ezetz erantzun behar diegu, legeak betetzen direla edo gezurrak direla. Horretan ari da aspaldidanik preso-en eskubideak betearazteko Bortzirietako Plataforma. Plataforma anitza (41 talde ezberdinetik goiti sinatu baitute) bezain borondatetsua. Gisa honetako taldeei esker lortuko da justizia. Idazkitxo hau borondate oneko jendeari dei bat da, preso-en eskubideak etzi baino hobe bihar bertan lortzeko egiten dugun deia, bakoitzak ahal duen moduan justiziazko helburu hau denon artean lor dezagun. Plataforman badago denontzako tokia eta zeregina.

Garai garrantzitsuak bizi ditugu. Ilusioa da nagusi gure herrian eta ilusioa ezinbertzekoa da gauzak mugiarazteko. Baita ilusioak sortzen duen indarra ere. Ilusio hori lana bihurtuta nahi duguna lortuko dugu, justiziazkoak diren aldarrikapen guztiak.

Animoak, beraz, plataforman parte hartu eta preso-en alde lana egiteko prest daudenei. Animoak Patriziori, gartzelako egonaldia larrutik ordainduta, zorionez, gure artean duguna eta bere senideei. Animoak gure preso-eta

## IRAKURLEAK MINTZO

beraien senideei eta animoak Euskal Herriaren borrokarekin lotuta egoteagatik gaur egun izkurtuan dauden bortzirietarrei eta beraien senideei ere. Denei, laster ikusiko dugu elkar.

BORTZIRIETAKO HERRI BATASUNA

**Kultura?**

Baztango Balleko Etxeko "kultur" Zerbitzuak Guggenheim bisitatzera gateko autobus bat antolatu du, ijuju! ze ongi! Azkenean izenen dugu aukera "al gran Bilbao" gateko eta museo puske hori kuskete! Nola preokupetzen diren udaletzeko hauek, ze lana iten duten guregatik.

Kultura hitza azpimarratu nahi izan dugu, Kultur Zerbitzuak horixe iten baitu, kultura zerbitzatu, bere definizio oso-osoan: garapen intelektual edo artistikoa. Baztandarren buruak garatzeaz arduratzen dira, arras ongi, baina nola garatzen dituzte? ongi? gaizki? Gure garapen artistikoa bermatzen dutela ez dugu dudena patzen, hori bakarrik iten baitute urte osoan, arteaz bete gure inguruek, behin eta berriz margo era-

kusketak eta margo ikastaroak antolatuz. Intelektualki berriz, ezin dugu erran gure buruek garatzeko esfortzu handiegia iten dutenik, edo beharbada intelektualaren kontzeptoa arras diferentia dugu.

Euskaltzaindiari dagokion parrafoa akitute, pasa gaitezen soziopolitiko-historikoa den arrazoi batetara.

Baztanen jende modernoa, ikesia, artista,...aunitz dago, eta noski, Guggenheim guzti horren irudie da, XXI. mendeko pentsakera, aurrerakoaia, Euskal Herriaren erakusgarrie...bla, bla, bla!!!

Ez al gara konturetzen zer den mamutzar horrekin pixkenakapixkenaka lortu nahi dutenaz? Hojalatazko itsasontzi haundi, garesti, moderno eta itsusi hori Euskal Herriaren irudie bihurtu nahi dute, gure kultura, gure ohiturek, gure herrie azken finean suntsitu arte. Horrela hasi dire eta jadanik bere fruituek ematen ari da. Zein izenen da hurrengo pausue? Gernikako arbolan uraniozko kolumpio bat patzia eta umeak harat gatia jostatzera? Edo herriko bestetan mutildantzen partez "Macarena" dantzatzia?


Akitzeko, Balleko Etxeko Kultur Zerbitzuari lanian segitzeko eskatzen diot, baina aunitzetan kanpoko gauzetara beiretu biharrian, etxeko kezka, arazoak,... tratatzia ez da txarra izeten, adibidez, gure kultura, ohiturek... zaintzeko. Zertaz ez duzue txalaparta edo alboka ikastaro bat antolatzen? Zertaz ez duzue Amaiurko monumenture ateraldi bat antolatzen? Politikan sartzia ote da? edo beharbada hori ez da kulturaren definizioan sartzen?

Kultura aunitzez zabalagoa da, gauze aunitz in daitezke kultura lantzeko, eta gauzek antolatzen, beharbada gazteekin gehiago kontatzia ez legoke gaizki, gehiegi eskatzia ez bada.

Uste al duzue urtian 3 margo erakusketa antolatute zuen buruek zuritzen dituzuela???

BAZTANGO GAZTE ASANBLADA





# ttiipi-ttapa ZOZKETA

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETAn parte hartzeko boletoak irabaziko dituzu honako denda eta ostatu hauek guzietan:

## DESKONTUAK

### AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ . . . . . Bertiz

### AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR . . Doneztebe

SANPI ARAGON . . . . Doneztebe

PEDRO GARMENDIA . . Elizondo

DATUCELAY . . . . . Elizondo

SANSIÑENA . . . . . Elizondo

LACOSTA . . . . . Irurita

ZALAIN MOTOR . . . . Bera

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER . . . . . Bera

### ARGAZKI DENDAK

GOIKO . . . . . Bera

AYLA . . . . . Bera

MENA . . . . . Doneztebe/Elizondo

ZALDUA . . . . . Doneztebe/Elizondo

### ARROPA DENDAK

EDURNE . . . . . Bera

SAIOA . . . . . Doneztebe

J.J. PIGABEA . . . . Doneztebe

TXIRRISTA . . . . . Doneztebe

KAMAMILA . . . . . Doneztebe

PIGABEA BOUTIQUE . Doneztebe

MARELI . . . . . Elizondo

IPINGI . . . . . Elizondo

COCOS . . . . . Elizondo

KATTALINGORRI . . . Elizondo

FANTXIKE . . . . . Elizondo

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIKUS . . . . . Lesaka

ALTZURI . . . . . Lesaka

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA . . . . . Doneztebe

BEATRIZ . . . . . Elizondo

MARIAN . . . . . Lesaka

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . . Elizondo

ZELA KIROLAK . . . . Bera

AGARA KIROLAK . . . Bera

M<sup>a</sup> LUZ SPORT . . . . Bera

### LENTZERIAK

M<sup>a</sup> CRUZ . . . . . Doneztebe

MAITE . . . . . Elizondo

DENE . . . . . Lesaka

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS . . . . . Elizondo

LEGARRA . . . . . Lesaka

### MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK . Doneztebe

LEIZA . . . . . Elizondo

### OPTIKAK

OSTARGI . . . . . Bera

### PENTSUAK

MENDAUR . . . . . Doneztebe

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS . . . . . Bera

GOÑI . . . . . Elizondo

NEREA . . . . . Doneztebe

OSTIZ . . . . . Doneztebe

### ZURGINAK

ZIMELDI . . . . . Etxalar

## ...eta erosketagatik deskonturik ez, bainan bai boletoak irabaziko:

### BERA

AZALEA Loredenda

ZIZKA Ostatua

BIDAXKA Ostatua

PUY Ostatua

ERREKALDE Ostatua

FAIDEL Ostatua

M<sup>a</sup> JESUS DIAZ Liburudenda

DIRDIR Oparidenda

IGONE Paperdenda

KALASH Erlojudenda

MARTZUTZAK Arropa eta opariak

NAFARROA Janaridenda

OIHANA Arropadenda

PRIETO Estankoa

RADIO BIDASOA

MIGUEL Jatetxea

### DONEZTEBE

LAKANBRA Motoak

ALUSTIZA Lurrindenda

BLAS Liburudenda

KALASH Erlojudenda

### ELIZONDO

B. ALMAMDOZ Zapadenda

IZETA Erlojudenda

IZOZTUEN ETXEA

JAVIER Elektragailuak

MARTIN ARRAZTOA Motoak

MERKAOPARI

NATURA ETXEA

RETEGI Gozotegia

SOBRINO Iroldegia

### LESAKA

LABEKOAK Goxokidenda

OSIÑA Arropadenda

BITTIRIA Harategia

ELENA Arropadenda

ELENA Jostailuak

ETXARTE Erlojudenda

FAGOAGA Harategia

GOIZ ARGÍ Arropadenda

INAXIO Janaridenda

KOKKILA Ostatua

SASKI BERRI Ostatua

## o h a r r a k

- 1 Zozketa eta saria TTIPI TXARTELA dutenentzat da bakarrik
- 2 TTIPI TXARTELA eroski TTIPI-TTAPA laguntzen duzu (aldizkaria + Telebista)

Eskatu lehenbailehen zure TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu ematen dituen abantaila guztiak

948 631188



Joseba IRAZOKI Lesakatik

## Bortzirietako feriak Lesakan



Lehendabiziko eta behin, Lesakako ferien gaineko kontu bat argitu nahiko nuke: urtero herri hone-tan egiten da feria hau, bainan aipatu behar da berez Bortzirietako feria dela, garai batean bortz herrietako baserritarrak joaten baitziren beren aziendak saltzera, horrela baserrian beharrezkoak diren gauzak erosi ahal izateko. Gaur egungo feria egunak ez du batere zerikusirik duela 100 urtekoarekin. Lehen egun hau bertze lan egun bat zen, nahiz eta ferietan egindako lana nahiko berexia izan, azienden salerosketa, alegia. Orain egiten den bakarra data hori gordetzea da, familia mantendu ahal izateko astean zazpi eguneguz lan egiten zuten gure arbaso haien oroimenez. Egia da, modu berean, denbora haietan arras egun berezia izaten ahal zela inguruko baserritarrentzat, gainontzeko abeltzainekin bildu eta urte osoan kezka gehien ematen zieten kontuei buruz mintzatzeko ahal ziren luze eta zabal. Elkarrekin bazkaltzen zuten bitartean alaitasuna izaten zen nagusi mahaiaren inguruan, eta gehienetan ohiko bertsoak kantatzen akautzen zuten. Gainera, usadioa izaten zen etxera aterki berri batekin eta baratxuri korda lepagaiean zutela itzultzea. Gaur egun Bortzirietako ferietan egiten den eszenografia erabat sinbolikoa da, eta ez du gure atautxientzat izan zezakeen erranahi berdina, ezta inondik ere. Hala eta gu-

ziz ere, ekitaldi kultural arras gurea dela pentsatzen dut nik eta mantendu beharko genukeela, baina ematen diogun ikuspegia aldatuz. **Gaur egungo feria bertsio modernoa.** Nere ikuspuntu-tik, azienda ferietan bertsio modernoa da gaur egun egiten dena. Lehengo saskigile, arotz, tela saltzaile edo baratzetako produktuak saltzen aritzen ziren eskualdeko artisauek oraingo "Paisa" delakoei utzi diete euren tokia, baina gauza bat bederen mantentzen da tradiziozko salerosketa horretan, tratua, alegia.

- Egia erran, feria egunak ekartzen duen onura bakarra Lesakako Udaleko diru-kutxetara doaiena da.**
- Nik uste egun hau nolabait birplanteatu egin beharko litzatekeela.**

Egia erran, feria egunak ekartzen duen onura bakarra Lesakako Udaleko diru-kutxetara doaiena da. Nik uste egun hau nolabait birplanteatu egin beharko litzatekeela, eta behar bada eskualdeko dendariak beren komertzioetako gauza erakusgarrienak jartzen ahal zituzten karrketan. Gainera, baserritar guztiak parte hartzeko bideak jarri beharko lirateke (dirulaguntzekin), hauek garai batean baserrietan erabiltzen ziren tresnak jautsi eta erakusketa bat egin zezaten. Feria eguna, azken finean, aitatxiei omenaldi gisa ulertu beharko genuke, baliabide guttirikin erronka haundiak lortzen baitzituzten haiek.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra, 98ko azaroak 6

«Azpilkuetakoa naizela diote. Ez dakit herri hori non dagoen ere, noizbait joan beharko dut eliza eta karririk ikustera... funtsgabea da, beti izandu gara hemengoak, Zugarramurdikoak».

**Mikel MITXELENA  
ETXEBESTE**

Istiekoborda baserrikoa  
Diario de Navarra 98-XI-6

«Egia esan, dugun bezalako komunikazio eskasarekin, Goizueta bezalako herri tiki batean eta horren aukera guttirik, zaila da sinisten ditugun bezain kirolari onak ditugula».

**Pilar UNTXALO**

Goizuetako alkatea  
Diario de Navarra 98-XI-3

◆ **Feria Egunean lanean aritzen zara edo barkazioa hartzen duzu?**

◆ Lana izaten dugu, mobledendak ez du bertze aukerarik uzten.

◆ **Libre izanez gero, ferietarako programarik onena?**

◆ Goizean aziendak eta giroa ikusi, hor barna bazkaldu eta arratsaldean pilota partiduak ikusi.

◆ **Zerbait erosten duzu egun honetan?**

◆ Herriko dendetan trankil ederrean erostea nahiago dut. Kalidadea ere hobea da.

◆ **Baserritarrak, taxian edo oinez itzultzen dira etxera?**

◆ Norbera bere kotxean, taxiarena aunitz moteldu da azken aldi honetan.

◆ **Taxian egin duzun bidairik luzeena?**

◆ Avilaraino joan nintzen behin.

◆ **Taxian lan egiteko, feriak, iñauteriak edo Sanferminak?**

◆ Sanferminetan lan gehiago egiten da, kanpoko jendea ere gehiago etortzen baita.

◆ **Moble on bat egiteko zurarik onena?**

◆ Inportanteena mobleari ematen zaion akabera da, zura edozein dela ere. Lana egiteko modua eta nork egiten duen da garrantzitsuena.

◆ **Zurarik garestiena eta merkeena, zein dira?**

◆ Guk erabiltzen dugunen artean, garestienak giltzaurra, gerezia eta haritza. Merkeena, berriz, pinua, baina pinuan ere badira klase aunitz.

◆ **Argazki zaletasun handia duzu. Kolorea edo txuribeltza?**


◆ Feriak adibidez txuribeltzean. Iñauteriak, ordea, hobe koloretan.

◆ **Zein da argazkitan biltzeko gehien gustatzen zaizun gaia?**

◆ Feria aunitz gustatzen zait eta posible dudanean argazkiak ateratzen ditut. Aziendak, baserritarren aurpegiak... Paisaiak ere gustatzen zaizkit.

◆ **«Dollar» diskoteka zenutenetik zein oroitzen gorde duzu, ona ala txarra?**

◆ Feria egunean bietatik. Ona, giro berexia zegoelako eta txarra, jendea kargatu xamarra sartzen zelako eta gorabeherak izaten zirelako.



**Fidel ORDOKI**

Moble saltzailea eta taxista

LESAKA

 **Ostargi  
Optika**  
Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

 **J. RAMOS**  
Zolak akutxilatu eta  
barnizatzen ditut  
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

 **lleapaindegia**  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESAKA

**PIKABEA**  
Molinero drogerian *pinturak*  
galdetu  
**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**EDARRIAK**



Bidasoa K/62 - 31700 BERA (Nabarra)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031•BERA

**ttipi-ttapa  
internet**  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttiji-ttapa>  
E-mail: ttiji-ttapa@topagunea.jalgi.com

## Presoen aldeko ibilaldia egingen da asteburu honetan Bortzirietan

Bi egunez, bortz herriak lotuko ditu elkartasun martxak

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko egoera neurri batean aldatu, eta bakerako bidea argiago ikusten bada ere, presoen egoerak bere horretan segitzen du: Euskal Herritik urrun. Nahiz eta legeak berak etxera hurbiltzeko eskatu. Eta zigorraren hiru laurdenak bete dituztenak gartzelan segitzen dute, nahiz eta legez libre behar luketen egon. Bortzirietako presoen aldeko plataformak, horregatik, arazo eta sufrimendu hori arindu behar dela erran nahi dute, berriz ere, legeak eskatzen duena bederen betetzeko. Guziok horretaz oharrarazteko, oraingo honetan Bortzirietatik zeharkatuko dituen oinezko ibilaldia antolatu dute, azaroaren 21 eta 22an burutu den ibilaldia.

### BORTZERRIAK ELKARTUKO DIRA BI EGUNEZ

Larunbatean, goizeko 10etan Berako Alzate plazatik Lesakara abiatuko da martxa. Lesakatik Igantzira



Euskal Presoak Euskal Herrira Bortzirietako Herri Ekimenak hainbat ekitaldi antolatuak ditu lehen ere. Asteburuan, bortz herriak bilduko ditu oinezko martxak.

Artxibokoa

ailegatuko dira eguerdiko ordubata aldera eta Biltoki elkartearen bazkalduko dute. Bazkalduko solasaldirako ez da tarte haundirik izanen, Igantzitik Arantzara egingen baitute, arratsaldeko 5,30etan ailegatzeko asmoarekin. Arratsaldeko 7etan ekitaldia egingen da eta gero afaria Ekaitza elkartearen. Arantzan lo egiteko, furgonetan eramaten diren lo-zakua eta

aislantea hartzea gomendatu dute antolatzailleek.

Igandean, berriz, goizeko 9etan abiatuko dira Arantzatik Etxalarre-ra. Eguerdi aldera ailegatuko dira ibiltariak eta hemen, bukaerako ekitaldia eta bazkaria izanen dute.

Izena emateko epea ortzegunean akautuko da eta 948 637266 telefonora deitu eta mezua erantzungailuan utziz

egiten ahal da.

Patrizio Goienetxe lesakarra aske utzi ondotik, honako eskaerak egingen dira martxa honetan: Joxelu Etxeberria, Jose Luis Sebastian "Sebas" eta Josu Unxion beratarrei baldintzapeko askatasuna ematea, zigorraren hiru laurdenak aspaldian beteak baitituzte eta Iñaki Fagoaga lesakarrak bere zigorra Euskal Herrian bete dezala.

## Mitch hurakanak kaltetutakoei laguntza biltzen ari da DYA

Ertamerikako lurraldeetan Mitch hurakanak eragin dituen kalteak direla eta, Nafarroako Bide Laguntza Elkarrekin (DYA Nafarroa), janari biltzeko antolatu du lurralde haietarako. Gure eskualdean, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bidasoan, Doneztebeko DYA arduratuko da.

Janaria denez beharrezkoena, honako jakiak izanen lirateke garrantzitsuenak: arroza, babarrunak, lentejak, azukrea, esne hautsa, poteko janariak, jateko pasta, xaboa eta olio. Bilketa hau aste honetan egingen da eta Herriko Etxe guzietan uzten ahal da laguntza, bertatik Doneztebeko DYAKo kideak bilduko dituzte eta. Informazio gehiago nahi izanez gero, telefono hauetara deitzen ahal da:

948 450170 edo 948 450921 (azken hau asteazken, ortzegun eta ortziraletan). Guztion laguntzaren zain daude.

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
948631106  
BERA  
Boda eta banketeak ematen dira

**SAROB**  
okindegia  
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031•BERA

**ROMANO PINTURAK**  
Barnealdeko dekorazioa,  
pintura, papera, moketa,  
kautxoa eta sintasola.  
948630941•948631137•BERA

**kalotxa zapatadenda**  
kanttonberri 6 Bera 948.631516

**Dia**  
Autozerbitzua  
deskontua  
Hamabostero  
ofertak  
Zatuz eta ikusi  
Eztegara, 6  
948631403•BERA

# Joxelu Etxeberria abenduaren 17an aterako da gartzelatik

Legez, ordea, kanpoan behar zuen duela bi urte

## ASIER GOGORTZA

Joxelu Etxeberria euskal preso politiko beratarra aske geldituko da heldu den hilabetean, Espainiako gartzela desberdinetan 8 urte eman ondotik. Hasiera batean 99ko otsailean zen ateratzekoa Joxelu, baina azken orduan zigorra hiru hilabetean murriztu diote, preso egon den bitartean hainbat ikasketa egin dituelako, EGAKo titulua eta Magisteritzako ikasketak, bertzeak bertze.

1990eko uztaillean eraman zuten 14 urteko zigorra aitzinetik zuela, eta orduztik Carabanchel, Daroca eta Lugoko espetxeetako bizi baldintza gogorrek ezaugutu ditu Joxeluk. Gaur egun Monterroxoko espetxean dago preso, baina aurtengo eguberriak senide eta lagunekin batera pasatu ahal izanen ditu berriz ere. Zorionak Joxelu eta senideei, eta animo barrenean gelditzen direnei!

### Santa Zezilia, musikarien eguna

Hilaren 22an egokitu da aurtan Santa Zezilia eguna, musikari guzien eguna, eta beti bezala musika eskolako atek ideki eginen



### Saverak Funverako kapitalaren %51 erosiko du

Duela bortz urtetik honat Nafarroako Gobernuaren eskutan zeuden Berako Fundizioak. Izan ere, fabrika ixteko puntuan egondu zen orduan, baina badirudi burua altxatu duela eta administrazioaren babesik gabe aitzinera segitzeko gauza dela. Horrela bada, kapitalaren %51 erosi du orain Saverak, eta epe ez luzean bertze sozio batek eskuratuko du gainerako kapitala. Gaur egun 155 langile ari dira Funveran, 105 finko bezala eta 50 aldi baterako kontratuarekin. Aipatu behar da momentu honetan Funverako langileak komenioa negoziatzen ari direla fabrikako zuzendaritzarekin.

dira eta bertako ikasleek audizioak eskainiko dituzte e. Azaroaren 22a igandea denez, ordea, eguna gibelatu behar izan dute irakasleek, eta heldu den asteko asteazkenera pasatu dituzte ospakizunak. Hilaren 25ean, beraz, Musika Eskolan ikasten duten 160 ikasleek beren abileziak erakutsiko dituzte publikoaren aitzinean. Horretarako, kontzertu berexia prestatzen ari dira denen ar-

tean. Bakoitza bere musika tresnarekin, banan-bana edo taldeka, pieza desberdinak interpretatuko dituzte ikasleek. Kontzertu horretan Berako koral eta musika banda ere ikusteko eta aditzeko aukera izanen da. Egun horretan ez da klaserik izanen Musika Eskolan, eta kontzertua arratsaldeko 5,30etan hasiko da.

### Labiagakoak itxialdian

Labiaga ikastolako gu-

raso eta irakasleek asiteburu osoko itxialdia egin dute Berako Herriko Etxean. Duela lau urteko arazoari ezin konponbiderik aurkitu, eta protesta ekintzak berretzea pentsatu dute Labiagako ikastolakoek. Gogoratu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) etapa legezkatzea eskatzen dutela.

Ortziral arratsean sartu ziren eta igande eguerdian ateri.

## flash

### Bertso saioa

Abenduaren 11an bertsolari gazteen-tzat antolatzen den Xalto Sariaren finala izanen da Goizuetan, baina azaroaren 27an, hau da, heldu den ortziralean, finalistak erabakitzeko kanporaketa bat egingen da Iamotenean. Saioa horren hotza ez izateko afari baten inguruan bilduko dira bertsolari eta zaletuak.

### Ehizi-arrantza

elkartek bere atek itxi beharko ditu lokala behar bezala egokitu arte bederen. Momentuz, beraz, ezin izanen da otorduak egiteko erabili.

### Egingo dugu

Euskal Herri osoan arrakasta handia izaten ari da Egin berria ateratzeko martxan jarri zen diru bilketa. Denetara mila milioi biltzea da helburua, eta Beran bakarrik 5,4 milioi bildu dute, uste baino 2 gehiago. Hola aisa Eginen Dugu!

### Menopausia

Lesakako Osasun Zentroak menopausiari buruzko III. Jardunaldiak antolatu ditu Beran. Astelehenean hasi ziren solasaldiak Rikardo Baroja eskolan, eta ortzirala arte egunero landuko da menopausiaren inguruko gai bat. Arratsaldeko 6etan izanen dira.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763



**BOTXO**  
ostatua

Tfnoa: 948 630 052  
Zalain Auzoa, BERA



**LESKA**

# Patrizio Goienetxe preso ohiari omenaldia egingen zaio azaroaren 28an

Urriaren 30ean aske utzi zuten, gartzeletan bortz urte eman ondoren

AITOR AROZENA

Urriaren 30ean utzi zuten libre Patrizio Goienetxe herritarra, baldintzapeko askatasunean. Patriziok bortz urte luze eman ditu gartzelean eta eri dagoelako utzi dute libre. Langraitzeko espetxetik atera bezain laster, senide eta lagunak besarkadak jaso zituen. Herrian, berriz, arratsan ongi etorri hunkigarria eskaini zitzaion: dantzari eta bertsolarien agurra eta plazan bildutako jendetzaren txaloen berotasuna hartu zuten Patrizio etxerat itzuli zen egunean.

Larunbatean zortzi, azaroaren 28an, omenaldia eskainiko diote herriko talde eta elkarre ezberdinek Patrizio Goienetxeri. Talde edo elkarte bakoitzak opariren bat emanen dio Patriziori oroigarritzat. Presoekin elkartasun ekitaldiekin segituz, aipatu larunbat goizeko 11,30ak aldera ailegatu gaitu dela Beratik Lesakara Presoen Aldeko Bortzirietako Herri Ekimenak antolatutako ibilaldia. Bertzeak bertze, Iñaki Fagoaga Euskal Herrira ekartzea eskatzen du martxak. Hemendik Igantzira joanen da.



## Abesbatzako gizonak Amaia Zubiriaren azken diskan

Lesakako Abesbatzako gizonzkoek osatzen duten Ziobi taldeak Amaia Zubiria abeslariaren azken diskan parte hartu dute. «Hou pitxu hou!» diska Durangoko Azokarako prest egonen da eta orduan lesakarren ahotsak aditu ahal izanen ditugu. Grabazioa egiteko estudioko esperientzia hagitz interesgarria izan da taldearentzat eta datorren urterako proiektu berri bat prestatzen ari omen da Amaia Zubiria, elkarrekin lan egiteko.

## Elkartasuna Ertamerikarekin

Igande honetan elkartasun jaialdi ederra egin da udal pilotalekuan. Jakina da Ertamerikan haize bolada indartsu batek sortu duen hondamendia. Azkeneko hiru urteotan inguru hartan –El Salvadoren zehazki– daude Garbiñe eta Amaia Larralde ahizpak. Uda partean, liburutegi bat egiteko dirulaguntza biltzen aritu ziren herrian, baina oraingo egoerak,

xoxa horiek premiazkoagoak diren beharretara bideratzera behartu du.

Igandeko jaialdian herriko kultur eta musika talde gehienek parte hartu zuten, inguru horretarako ahal den diru guziaz biltzeko asmoz. Jendeak ere, beharrezko araberaren erantzun eta gainezka bete zuen pilotalekua, ekimen txalogarri honetan. Norbaitek oraindik laguntza gehiago eman nahi badu hona hemen CANeko kon-

tu zenbakia: 2054 0007 66 9119161575.

## Telebista antena berria jarri dute Deskargan

20 milioi terdi gostatuko da Deskarga inguruan (Zalain gainean) TB antena berria paratzea. Antena honekin, Bortzirietan telebista seinalean sortzen diren itzalak moldatuko dira. Antena egiteko herri lurraldeak eman ditio Udalak Nafarroako Gobernuari.

## flash

### Fabrikako bi zuzendariri epaiketa

Jesus Imaz eta Juan Aranguren, Aceralia lantegiko bi zuzendari hutsegite arinagatik zigortu ditu Iruñeko Epaitegiak. Bi zuzendariak Pedro Portu langilearen heriotzagatik epaitu zituzten. Aseguruak emazteari 30 milioi pezeta eta gurasoei 4 milioi pezeta ordaindu beharko dizkie.

### Herriko jarlekuak

margotu eta hondatuak daudenak berritzeko lana Manuel Zamoranok egingen du. Pintura lanagatik 562.866 pezeta ordainduko zaio eta hondatutako eserlekuak berritzeagatik 184.063 pezeta. Bertze bi proposamen ere aztertu ziren, baina udalbatzaren ustez, Zamoranoren zen onena.

### Sokatira taldea lanean

Igande honetan jokatuko du herriko taldeak Nafarroako txapelketako 680 kiloko finala Ultzaman eta asteotan 640ko kategorian ariko da.

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESAKA

Manuel Zamorano  
Bernizadurak  
Pintura  
orohar  
Bititria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA

XATURBETXEA  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**ETXALAR**

# 60 milioi gastatuko dituzte Gobernuak eta Udalak plantaziotan, heldu den neguan

Zabaleta eta Unanegin eginen dira plantazioak

PELLO APEZETXEA

Berriki Herriak erositako Zabaleta mendia jantzi beharrean zegoen, salmentarako pinduondo guztiak bota baitzituzten. Orain ailegatu zaio berriz ere landarez hornitzeko ordua. Negua akautu orduko, mendi osoa 100.000 eta gehiago landarez bestitua geldituko da. Gainera, Unanegin hogeita hamaika mila landare sartuko dira. Nafarroako Gobernuak 50 milioi baino gehiago emanen ditu, eta gainerakoak herriak.



### Medikuaren solasaldiak

Jende multzo polita bildu da Julian Bereziartua medikuak emandako lau solasaldietan. Jendeak gogoz entzun ditu bere erakutsiak. Ikusi bertzerik ez, nola etorri den lau egunetan. Argazkia: Pello



### Haurrak Xorroxinen

Landagain Eskolako haurrek gainditu dituzte, aurtengoan ere, irrati saioak. Ttikiek eta haundixea goek, denek egin dute lan, eta irakasleek zer erranik ez. Argazkiak: Pello

### Presoen aldeko ibilaldia

Bortziriak zeharkatuko dituen oinezko ibilaldia antolatu du presoen aldeko plataformak, azaroaren 21 eta 22an. Beratik Lesakara, Lesakatik Igantzira, eta

hemendik Arantzara eginen da larunbatean. Igandean, berriz, Arantzatik Etxalarrera etorriko dira, eta hemen bazkariarekin akautu.

### Kultur ekitaldiak hilaren 27 eta 29an

Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa,

Saroko Gaztetxea eta Etxalarko Altxata elkartek, Kultur Hamabostaldia 98 antolatu dute, aintzineko urteen antzera. Etxalarki dagokionez, azaroaren 27an Grafologiari buruzko solasaldia izanen da Herriko Etxean, non jendearen idazkerak haren

izaera ezagutzeko balio duela azalduko duen Iruñe Ibarrek. Azaroaren 29an, berriz, 11 eta 12tik aitzinera, Herriarteako Jokoak eginen dituzte herrietatik etorritako taldeek.

Ondotik, Larraburuan bilduko dira bazkaltzeko.

### Pintura erakusketa Herriko Ostatuan

Hamabortz bat koadro ikusteko aukera da Herriko Ostatuan. Koadroetan, Rosalinda Pablos donostiarrak pintatuak, Etxalarko hainbat etxe eta xoko polit ikusten ahal da.

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • © 948637944  
LESAKA

**bitxikeriak • opariak • enmarkazioak •**  
  
Albistur, 39-K  
☎ 948627542 • LESAKA

*Txema Etxarte*  
Zolen akutzilatze eta bernizatze profesionala  
© 948 637439 • 31700 LESAKA

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektnra bulegoa  
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako haltzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik hurbilago  
Bittiria, 67 • © 948637264

**IGANTZI**

# Dagoeneko ohitura bihurtu da udazkena ekitaldiz bete-betea egotea

Larunbat honetan, presoen aldeko ekitaldiak eta abesbatza Lesakako Zahar Etxean

**OSKAR TXOPERENA**

Igantzikoko Abesbatzak Lesakako Zahar-Etxean pasatuko du heldu den larunbat arratsaldea. Jakina denez, igantziar mordoxka dago Lesakan, eta euri eta bertan dauden zahar guzietan arratsaldea on bat pasarazteko asmoarekin doazi.

**Presoen alde**

Larunbatean, Bortzirietan barrena eginen duten ibilaldiaren barrenean, presoen aldeko Bortzirietako Ekimenaren partaideak Igantzin izanen ditugu. Beratik abiatuko da martxa larunbat goizean eta Lesakatik pasatu ondotik Igantzin pasatuko dute eguerdi partean, bertan bazkaldu eta Arantzan akautzeko eguna. Presoen eskubideak aldarrikatzeko eginen den ekitaldi honetan ahalik eta jende gehienak parte hartzea da helburua.

**Buzoi berria**

Orain arte gutunak edo kar-



**Zahar-Etxekoek ekitaldiak**

Hasia dute dagoeneko Zahar-Etxekoek udazken honetako mus eta partxis txapelketa. 14 bikote ariko dira musean eta .. partxisean, abenduaren 11a bitartean, orduan eginen baitute sari banaketa eta bazkaria. Bazkari horretara joan ahal izateko abenduaren 3a baino lehen eman behar da izena ohiko lekuetan. Heldu den astean, beriz, Iparraldeko Eletako feria bisitatzeraz joanen dira, gero Ibainetatik itzuli eta Zubirin bazkaltzeko. Ongi pasa!

tak Herriko Etxeko paretan dagoen buzoira bota behar izaten ziren postaz bidaltzeko. Hemendik aitzinera, ordea, ar-

kupeetara joan beharko da, buzoi berria han baitago, lehengo baino haundi eta txukunagoa.



**Kultur Egunen egitaraua**

- Abenduak 4, ortzirala**  
7etan, «Sendabelarrak» (Koldo Villalba de Diego) Biltokin.
- Abenduak 5, larunbata**  
5etan Marsel Magoa Zahar Etxean
- 8,30etan** Doneztebeko Abesbatza elizan
- Abenduak 6, igandea**  
12etan Oberena Dantza taldea.
- 6etan** Mikelats taldearen «Amaia: euskaldunak VIII. mendean» antzerkia.
- Abenduak 7, astelehena**  
5etan Trokoloren «Ali Baba eta 40 lapurrak» antzerkia Zahar Etxean.
- 8,30etan** «40 ordu» filmea eta solasaldia Biltokin.
- Abenduak 8, asteartea**  
Etxeko produktuen erakusketa. Arratsaldean, opilak eta sagardoa.

**BERRIKUN S.L.**  
CONSTRUCCIONES MECANICAS  
BERRIKUN S.L.  
Inkinarria eraikuntza  
aldaketak eta despiezea  
mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadoreak  
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**Lanchas**  
• Parketak - Tarimak  
• Kutxillatzea eta bernizatzeak  
• Estaldura orokorrak  
Bera © 948630735

**LORE ETXEA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • © 948637826  
LESAKA

**ATM S.A.**  
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.  
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera  
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)  
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)  
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**Toldos BAZTAN, S.L.**  
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA  
• Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)  
• Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)  
• Toldo korrederoak  
• Bolketeendako sareak  
• Kamioiendako klase guzietako toldoak  
• Piszina estaltzeko sareak  
• Trinkajetarako Slingak  
Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8  
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)  
Tel. 948. 63 10 03  
Mug.: 929 01 59 23



**ARANTZA**

# Baserritarren Eguna arrakastatsua suertatu zen eguraldiak lagundu ez bazuen ere

Ertamerikako lurraldeei dirulaguntza bidaliko zaie

ELIXABET ETA GARBIÑE

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, giro ederrean pasatu zen Baserritarren Eguna. Goizean pilotaplazan paratuak zeuden postuetan barna aitzineko urteetan baino jende gehiago ibili zen. Bertan, etxeko jakiak, postreak, eskulanak, etabar... ikusi eta erosi ahal izan ziren. Eguerdian Ekaitza elkarteko terrazan egin zen bazkaria, trikitixak alaiturik.

**Kontsulta, Herriko Etxea eta eskola garbitzeko lehiaketa**

1999. urtean kontsulta, Herriko Etxea eta eskoletako garbiketaz arduratuko den pertsona bat behar da. Hori dela eta dagoeneko epea



**Iturtzenbordako Luis Madariagaren makilak eta egurrean egindako lanak eta Auztinekobordako kalauza ikusgarria ikusminez begiratu zituen jendeak.**

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

zabaldu da, lan hau egin nahi duenak proposamenak aurkezteko. Epe hau abenduaren 2ko arratsaldeko 3ak arte, irekia egonen da. Baldintzak eta pleguak Herriko Etxeko idazkaritzan dago nahi duenarentzat. Azken era-

bakia abenduko osoko bilkuran hartuko du udalbatzak.

**Ertamerikako lurraldeei dirulaguntza**

Jakina denez, pasaden asteetan Ertamerikako lurraldeak arrot

kalteak subertu dira hurakan bat dela-eta. Udalak Honduras, Nikaragua eta Guatemalara 100.000 pezetako dirulaguntza bidaltzea erabaki zuen azaroaren 6an



egindako bileran. Gainera, herriko biztanle guzietan gonbidapena luzatu diete, ahal duten neurrian laguntza emateko eskatuz.

**Mendi komunalen erabilera arautzeko proiektua**

Arantzako herrilur edo mendi komunalen erabilera 1998, 1999 eta 2000. urteetan arautzeko proiektua egiteko lehiaketa egin du Nafarroako Gobernuko Ingurugirro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak. Hasierako aurrekontua 7.700.000 pezetakoa da eta astelehen honetan akautu zen proposamenak aurkezteko epea. Dokumentazioa, proposamen teknikoa eta proposamen ekonomikoa aztertu ondotik, las-

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •  
*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*  
 Eztegara 19 • ☎ 63 02 40  
 BERA

**ALBERGIA JATETXEA**  
 ☎ 948634179  
 ARANTZA

☎ 948 630 800  
**ALZAGA**

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317  
**HARRI NATURALA**  
 ATERRATZEA eta LANTZEA  
 Antzinaldeak Tximiniak  
 Angeluak Erlaizak  
 Orma antzinarak Moldurak  
 Leioak Zokaloak  
 Ateak Hilariak  
 Arkuak Marrazkiak  
 Pilareak  
 'Abujantadoa' Mazona  
 Zahar antzokoa Trapeantza  
**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**SUNBILLA**

# Eguberrietako ekitaldiak prestatzeko bilera egingen du Antzakaitz taldeak

Larunbat honetan, arratsaldeko 4etan, Ulibeltzak elkarte

JAIONE ETA ALBA

Antzakaitz Kultur Taldeak, urtero eguberrietarako antolatzen dituen ekitaldiak prestatzen hasteko garaia heldu dela-eta, bilera deialdia zabaldu du bere partaideen artean. Ulibeltzak elkarte burutuko da bilera hau larunbat honetan, azaroaren 21ean, arratsaldeko 4etan.

Olentzero eta Errege Kabalgata izanen dira gai nagusiak. Beraz, ahalik eta kide gehien etortzea eskertuko dute.

### Larrakaizko tuneleko trazatuaren zati bat aldatzea eskatu du udalak

Larrakaizko tunelaren proiektuari aldaketa tiki bat egitea proposatu dio Udalak

Nafarroako Gobernuaren Horixe izan ziren 16ko batzarre tabaidatutako gaiak. Eskariaren araberako errepide berria Bobasariaren paret Kixonearen eskudetik egitea egokitu da Udalaren ustez.

Jakinaenez, pidea Mariezkuren eraikuntza enpresaren du, 1.410 milioi zeta truke. Errezati berriak 2.100 troko luzera izango gaur egun 3.6 metro dituen tartehorrek. Saihasbidearekin elkartuta, 3.800 metroan errepide berria izanen da.



### 1,6 kiloko onddoa hartu du Jose Luis Ibarrek

Duela aste pare bat 1,6 kiloko onddo ederra harrapatu zuen Jose Luis Ibarrek Suspiro aldean. Garaiak agintzen duenez, ihizian zegoen eta hara non ikusten duen bi kapeleko onddo ikusgarri hau. Otordu ederra egin izanen duen duikabe!

## flash

### Udal zergak

Datorren urtean neurri hauen arabera ordaindu beharko dira Sunbillan udal zergak: Hiri Ondasunen Zerga, %0,5; landa eta larreak, %0,75 eta eraikuntza, instalazio eta obren gainera, %3,5. Lur-eremuaren balorearen igoeraren gainera zerga honelaxe banatuko da. Lehenbiziko bortz urteak %2,2; hamar urte bitartean, %2,1 eta hamabortz urte arte, %2.

### Uraren prezioa

**Etxeko ura:** 10 metro kubiko edo gutiago, 350 pezeta; 10-50 metro kubiko, 25 pta/m<sup>3</sup>; 50-110 metro kubiko, 40 pta/m<sup>3</sup>. 110 metro kubiko baino gehiago, 45 pta/m<sup>3</sup>.

**Etxerako ez den ura:** 10 metro kubiko edo gutiago, 500 pezeta; 10-110 metro kubiko, 45 pta/m<sup>3</sup>. 110 metro kubiko baino gehiago, 55 pta/m<sup>3</sup>.

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN**  
 Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**BELARRA**  
  
 OSTATUA - JATETXEA  
 Ameztia karrika • DONEZTEBE  
 Tfnoa: 948 450 306

**ttipi-ttapa internet**  
  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
 E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

  
**APARAN, S. A.**  
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEn**

 **MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**DONEZTEBE**

# Laxoaren etorkizuna ziurtatua dagoela erakutsi dute gazteek

Jubenil mailako txapelketan A taldea nagusitu da

PATXI IRIARTE

Bear Zana pilotalekuan azken bi hilabetetan jokatu den laxoa txapelketa akitu da. Konpetizioari dagokionez, azaroaren 8an jokaturako finalean A taldeak B taldeari irabazi zion. Baina gibeletik laxo jokalarai aunitz heldu direla ikustea hori baino garrantzitsuagoa da: Arraztoa, Apezetxea eta gisakoek, Mariezkurrena, Iribarren, Ganboa eta gaur egungo jokalarietan segida izan zuten bezala, hauek ere abudo ikusiko dituzte gazteak txapelak herriratzen.

Zenbait astez, eguraldia dela eta, gibeletatu behar izan zen finala. Beraz, herriko laukote onena zein den ikusteko gogoia bazen eta finalean, A taldeak ligaxkan erakutsitako nagusitasuna nabarmendu zuen, B taldekoei 9-3 irabaziz. txapeladunen taldean Josu Juanena sakatzailera, Luis Martin numeroa eta Josetxo Martin eta Gorka Bidegain laur-



## Giro ederra bizi izan zen ferietan

Azienda feriarra bezala, eguerdiko bertso saiora eta arratsaldeko aizkolari txapelketara jende ugari bildu zen. Aurtengoan, berrikuntza bezala, Langarra Euskara taldeak bazkari ederra antolatu zuen eskolako jantokian: garbanzuak azarekin, usoa edo baserriko oilaskoa eta izozkia, kafea, kopa eta pu-roa. Jatetxeak nola egoten diren ikusita aukera polita eskaini zuten.

denak aritu ziren. Txapeldunordeak, berriaz, Joxe Manuel Mitxelorena botarrian, Mikel Ariztegi numeroa eta Jesus Mari Migeltorena eta Luismi Garcia laurdenak.

Azkenean markagailuak bertzerik erakusten bazuen ere, partida berdindua hasi zen eta B taldea 1 eta 2 ai-

ztinetik paratu zen. Halere, A taldekoak laster lasaitu eta jokoan sartzen hasi ziren. 7 eta 2 irabazten paratu ziren eta txapeldunordeak bertze joku bat egin bazuten ere, finala jokatzearekin konforme gelditu behar izan zuten.

Partiduan norbait nabarmentzekotan, bi sakelariak, Juanena eta

Mitxelorena, aipatu behar. Txapelketa nagusian noiznahi aritzeko kalidade nahikoa dutela erakutsi zuten biek. Hori bai, horretarako gogor entrenatu eta pilota plazan lan aunitz egiten segitu behar dute. Gainerako pilotariek ere detaile politak utzi zituzten txapelketa interesgarri honetan.

**Portzontzia**

«Gure laguntza behar beharrezkoa da Ertamerikan»

Mitch hurakanak hainbat kalte sortu ditu Ertamerikan. Doneztebeko DYA arduratu da Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako herritarren laguntza biltzeaz. DYAKo ordezkaria den Iñaki Etxeberriaren ustez, «gure laguntza inoiz baino gehiago behar dute orain Ertamerikan». Hemen inguruan janaria izan da bilketaren xedea. Etxeberriaren erranetan, «hondatzen ez den den janaria bidali nahi dugu. Horretaz gain, han jaten dutenaren gisakoa izatea nahi genuke: hemengo babarrun edo ilarrak eta hango frijoleak antzekoak dira...». Inguruko Herriko Etxeetan utzi dituzte laguntza kutxak eta hau idazterakoan zenbat bildu den ez badakigu ere, «erantzun ona espero dugu» dio Iñakik.



Iñaki ETXEBERRIA

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

☎ 948 450 491



Urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea:

**10.000 Pta. + BEZ**

## KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

☎ (+34) 948 631188



## AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espesialitate euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028  
DONEZTEBE



**MALERREKA**

# Etxegia eta Boubeta suertatu dira garaile emakumeendako paleta goma txapelketan

Final ikusgarrian 35-30 irabazi zieten Elizainzin eta Argaini

PATXI IRIARTE

Mirari Etxegia eta Txus Boubeta suertatu dira garaile Doneztebe-ko Erreka elkarteak Baztan, Malerreka eta Bidasoaldeko emakumei zabalduko paleta goma txapelketaren laugarren edizioan. Joan den urtean ere beraiek izan ziren txapeldun, beraz, eskualdeko bikote onena dela erraten ahal da. Halere ez da batere errexa izan beraientzat. Finalen aurkari gogorak izan ziren Garbiñe Elizainzin eta Edurne Argain baztandarrak. Partida aski berdindua joan zen azken tantuak arte, baina txapeldunak 35-30 nagusitu ziren azkenean.

Finalaren aitzinetik, hirugarren eta laugarren posturako norgehiago-



Txapelketan parte hartu duten emakumeak, sari banaketaren ondotik.

Argazkia: Zaldua

ka jokatu zen. Altzugarai eta Pierolak 35-28 irabazi zieten Taberna eta Etxabarriri. Hau ere partidu orekatu eta ikusgarria izan zen.

Partiduaren ondotik

txapelak, sariak eta lore xortak banatu ziren. Iñaki Lizaso erremon-telaria ere bertan izan zen. Ondotik, afaria, dantzaldia eta behar zen guzua izan zen.

Erreka elkarteak antolatutako laugarren edizio honetan hameka bikotek parte hartu dute. Urtetik urtera maila hobea dela aski ongi nabari dute ikusleek.

# Kareta tailerra eta mozorro ikastaroa antolatu da Iturenen

Ibintza Kultur taldeak bultzatuta

PATXI IRIARTE

Karetak egiten ikasi nahi izanez gero, Iturenko Ibintza Kultur Taldeak bi teknika desberdin ikasteko aukera eskeintzen dizu. Alde batetik goma-espuma eta bertzetik telarra. Ikastaroa astean egun batez egingen da, aukeran: ortzegunetan arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara edo larunbatetan, arratsaldeko

3,30etatik 5,30etara. Izena emateko 948 450004 telefonora deitu behar da, izenaz gain aukeratutako eguna eta telefonoa aipatuz. Ondotik, antolatzaileak interesatuekin harremanetan jarriko dira. Ikastaroa Iturenko Herriko Etxeko sabaian izanen da.

**Goma-espuma eta telar teknikak erabiliko dira**



**flash**

❖ **Oihan ateratzea Beintza-Labaienen**

Beintza-Labaiengo Udalak Ameztia inguruko 966 haritz amerikano ateratzeko enkantea egin du. Zuhaitzek 717 metro kubiko zur eta 161 metro kubiko egur emanen dute. Hasi-rako prezioa 9.092.580 pezetakoa da eta proposamenak azaroaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

❖ **Elgorriagako etxe batean sartu zirenak epaituak**

Hilbeltzaren 27an Elgorriagako etxebizitza batean sartu eta bertan zeudenei lotu eta jo ondotik, ebatsi zuten lau lagunak epaitu dituzte Iruñean. Fiskalak eta akusazio partikularrak 18 urteko kartzela zigorra eskatzen du horietako barentzat, 17 bertzearentzat eta 15na bertze bientzat. Defentsak, berriz, aske uztea eskatu du.

❖ **Narbarteko Mitxel Aginaga**

kirolariak Espainiako Duatloki txapelketan parte hartuko du igande honetan Errioxan. Bi aldiz Nafarroako txapeldun suertatu den Aginagarekin izandako elkarriketa argitaratuko dugu, txapelketatik itzultzean.

# Azaroaren 19a Feria Eguna Lesakan

**O**rtzegun honetan, azaroak 19, burutuko da

Bortzirietako Feria Lesakan. Egitaraua, berez, asteazkenean zabalduko da, Merkatu Eguneko arratserako prestatutako ekitaldiekin. Halere, ortzeguna izanen da egun nagusia. Beti bezala,azienda feria eta lehiaketak jende aunitz bilduaraziko du goizean.



LESAKAn gaituzu zure zerbitzura  
Plaza Berria, 10 • © 948 637335

**Garbi - Leku**  
**tindategia**

Arropa, larruak, tapizak, etab... garbitzen ditugu

**MIKELAJAUREGI**  
*Arraindegia*

© 948 637046 - Albistur 19 - LESAKA

Zaldiak nagusitu badira ere, oraindik behi eta aretze aunitz aurkezten dira Lesakako azienda lehiaketara.

Fidel ORDOKIk utzia

★ **IZARRA** ★

**OKINDEGIA**

*Ongi pasa ferietan!*

Plaza Zaharra, 13  
© 948 63 78 55 • LESAKA

 **SIÑA**

*Gizon emakume eta haurren jantzidenda • Bitxiak*

Albistur 3, behea • © 948 637951 LESAKA

**ETXARTE**

bitxidenda  
erlojudenda  
**Kirol Trofeoak**

Albistur karrika, 1  
© 948 637205  
**LESAKA**

## Bortzirietako azienda onenak espero dira Lesakako Ferian

Asteazkenean Merkatu Eguna ospatuko da. Ez da jende aunitz mugitzen egun honetan, baina azken zortzi urteotan bezalaxe, arratsaldeko 6,30ak aldera ajoarriero lehiaketa antolatu du Beti Gazte elkarteak. Gero, Herriko Etxeak musika paratzen du plazan. Aurtengoan Joseba Iparragirre eta bere taldea arituko da. Biharamonean beraien postuak karriz karriz paratuko dituzten saltzaileak ahalik eta lekurik onenaren bila arituko dira arrats partean.

### Azienda lehiaketa Feria Egunean


Tratu gehiegirik ez badago ere, Lesakakoa da eskualdean aziendak saritzen dituen feria bakarra. Aurtengoan, Juan Fermin Mitxelena zinegotziak adierazi digunez, sariak

azkeneko urteetan eman diren berak izanen dira. Azienda guzietan izanen dute dieta bat, plazara agertzeagatik bakarrik, baina onenek sari inportanteak izanen dituzte (30.000 pezeta arraza ezberdineko behi onenen kasuan). Sari onenak behi aziendak jasotzen badituzte ere, zaldi eta behorrak dira azken urteotan gehien plazaratzen diren aziendak. Onenak 20.000 pezetako saria izanen du. Baina azienza ez da Feria egunak eskaintzen duen ikuskizun bakarra.

### Aizkora, harrijasotzea bertsoak, pilota...

Plaza inguruan aziendak dauden bitartean, plazaren barnean Saralegi anaiek herri kirol ikuskizuna eskainiko dute, 11,30etan. Aizkolariek bortz metroko altueran eta po-

lea baten zintzilika dauden enborrak moztuko dituzte. Mieltxo Saralegi berriz, 200, 250 eta 280 kiloko harri ezberdinekin arituko da lanean. Ordu bete beranduago Xabier Euskitze eta Xebastian Lizaso bertsolariaren saioa hasiko da. Ondotik, azienza lehiaketaren sariak banatuko dira. Goiz parteko ekitaldiak bazkari eder batekin akautzen dira normalean. Arratsaldean, berriz, Asegarceko profesionalen arteko pilota partiduak jokatuko dira udal pilotalekuan. Arrats partean, Plaza Zaharrean BASAKABI taldearekin dantzatzeko aukera izanen da. Aipatzekoa da, eraberean, egunean zehar artisau lanen erakusketa izanen dela Plazan. Honeraino Herriko Etxeak antolatzen dituen ekitaldiak. Honetaz gain, San Fermin Jubilatuko Elkarteak bere egoitzan afaria egiteko ere proiektuko du eguna. ■



**ttipi-ttapa**  
internet

Internet-orrria:  
<http://www.jalegi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

E-mail:  
[ttipi-ttapa@topagunea.jalegi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalegi.com)

**KOXKILA ostatua**  
Zarandia 4 LESAKA

**Labekoak Goxotegia**  
Arretxea, 24 • LESAKA

**MARIXUS**  
Elektragailuak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK  
Zarandia, 3 • © 948 63 70 70 • 31770 LESAKA

- Bertako zerbitzuteknikoa
- Elektrizitatea eta antenak (parabolikoak, kolektiboak...)
- Iturgintza eta bainuak
- Biltegia

**KASINO Ostatu-jatetxea**  
Plaza Zaharra 14 • © 948 637152  
LESAKA





**FAGOAGA  
HARATEGIA**

Albistur, 19 • Tfnoa: 948 63 78 69 • LESAKA



**ETXEBERRIA  
OSTATUA**

Plaza Zaharra • Lesaka  
© 948 637700



-----  
GARRAIO AGENTZIA

**ESTATU BARNEKO  
eta ESTATU ARTEKO  
GARRAIOAK**

- Antoiu 23 • Behea
- 31770 LESAKA
- Tfnoa: 948 627644
- Faxe: 948 627656

**IRIZOKI**

*Janaridenda*  
Ongi pasa feriak

Arretxea, 12  
© 948 63 70 85  
**LESAKA**



**GOIZ-ARGI**  
*Janzkeru • Lentzeria • Etxeburtea*

Plaza Zaharra 14 • © 948 637721 • LESAKA



**MAIZIEGOKA**  
**OSTATUA**  
*Ongi pasa ferietan!*



**TELEBOTE**  
**OSTATUA**  
Feria onak pasat!  
Arretxea, 10  
Tfnoa: 948 637188  
LESAKA



**BERRIZAUN**  
**TALERRA**  
**LESACA GASOLINDEGIA**

- Autoen konponketa
- Errebisioak
- Auto erabilien salmenta

Tel. 948 63 74 60 • Albistur 57 • LESAKA



**LESACA**  
**AUTOESKOLA**  
Albistur 39 - H      Tel.: 63 78 70

*Ongi pasa ferietan!*

**Juanjo**  
**ERRO**

Zurgindegi lanak  
orokorran  
Moble zaharren  
konponketa

© 948 637 862  
Alan-Zahar - LESAKA



**ALMACENES ETXANIZ, S.A.**  
**Lesakako Iturria Anaiak**

**IRUNen...**

- Bainuak
- Sukaldeak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasaia
- Osagarriak

**ERAKUSKETA**  
Juan Arana, 1

**Tfnoa. 943 61 17 67 IRUN**

**BILTEGIAK**  
Juan Arana, 3

**MALERREKA**

# Durangoko Liburu eta Diska Feriara ateraldia prestatu da

Abenduaren 8an autobusa antolatu du Ezpelura Emakume Elkarteak

**TTIPI-TTAPA**

Urtero bezala, abenduaren 8an Durangon eginen den Diska eta Liburu Feriara joateko autobusa antolatu du Ezpelura Emakume Elkarteak, Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz. Azoka famatua ikusteaz gain, Arbaso elkartearen zabalik dagoen artisau erakusketa bisitatzeko ere probetxatuko dute bidaiaria.

Autobusa goizeko 9etan abiatuko da Doneztebeko geltokitik eta antolatzaileek garbi utzi nahi izan dute edonor joaten ahal dela, gizaseme nahiz emakume, zahar edo gazte. Horretarako lehenbai-

lehen izena eman beharko da Malerrekako Mankomunitatean (948 451746 telefonoan, Begoña). Prezioari dagokionez, aukera ezberdinak izanen dira. Honela, CANeko Megaplan, Club 10 edo Edad de Oro bazkideentzat 2.200 pezeta gostako da. Ezpelurako bazkideek 2.500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, azkenik, 2.700 pezeta. Prezioaren barne, autobusa, bazkaria jantoki batean, bidaiaren aseguruia, Ferian sartzeko sarrera dohainik eta «feria ikusteko astia» omen dago entolatzaileren erranetan. Beraz, ez galdu honelako aukerarik!

**BERTIZARANA**

# Urdazubiko Bengoetxeak eginen du Legasako pilotaleku estalia

53 milioi pezetatik goiti gostako da

**TTIPI-TTAPA**

Urdazubiko Angel Bengoetxearen eraikuntza enpresak eginen du Legasako pilotaleku estalia, herriko kontzejuak azaroaren 2an erabaki zuenez. Bere proposamena, 53 milioi pezeta ingurukoa –hasierako aurrekontuaren berdintsua– onartu zen. Aitzineko alean, aurrekontua 57 milioi pezetakoa zela argitaratu genuen, baina kontzejuko idazkariak azaldu di-

gunez, kopuru horretan lanen zuzendaritza teknikoa ere sartua dago. Bertze proposamen bat ere aurkeztu zen, baina Bengoetxearena baino garestiagoa zen.

Orain, zazpi hilabeteko epea izanen da Bertizaranako epea izanen da Bertizaranako lehendabiziko pilotaleku estalia eraikitzeko lanak akitzeko. Pilotalekuak 36 metro luze eta 15 metro terdi zabal izanen du eta kantxan gutieneko altuera, berriz, 13 metrokoa izanen da.



**ADOS**

INMOBILIARIA AGENTZIA



Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948451841 / 908778653


e-mail: ados@iname.com

Parrokia, 9, behea • DONEZTEBE

## DONEZTEBE. 12 ETXE BERRI



**A tipoa: 97,96 m<sup>2</sup>**



**B tipoa: 96,05 m<sup>2</sup>**

**MATERIALAK**

- Gaztainezko tarima, lixatua eta bernizatua.
- Bainu eta sukaldean gres baldosak zolan eta keramika paretan.
- Bi aldeak haritzarekin txapeatutako monoblock ateak.
- Etxebizitzako atea segurtasun sarrailarekin.
- Ate-leihoetan Iroko zura. Climalit beira bikoitza.
- Komunak eta konketak Roca portzelana xurikoak.
- Gas-berogailuak eta aluminiozko erradiadoreak.

**Erreserbak hasiak dira**



**GOIZUETA**

# Zortzi hilabeteko kargugabetzea eskatzen du fiskalak herriko alkatearentzat

Omenaldi hunkigarria eskaini dio herriak Juantxo Apezetxea pilotariari

ESTEBAN AROZENA

Hurrengo martxoan burutuko den epaiketan Ministerio Fiskalaren eskaera aurrera ateratzen baldin bada, zortzi hilabetetan kargua betetzeko gaitasunik gabe utziko dute Pili Untxalo alkatea, hau da, Herriko Etxetik kanpo geldituko da.

Espainiako ejerzitoarekin ez kolaboratzea da Untxalori leporatzen dioten delitua. Dagoeneko lau aldiz eraman dute Iruñeko epaitegietara, eta azkeneko aldian 250.000 pezetako difantza ordaintzera behartu zuten.

Prentsan noiznahi jasotzen dira azken urte hauetan *delitu* berberekin epaitutako alkateak, HB eta EAkoak batez ere. Goizuetako Udalak 1990ean hartu zuen armadarekin kolaborazio guztia haus-



Herriaren esker ona jaso du lau aldiz munduko txapeldun izan den Juantxo Apezetxeak

teko erabakia. Legealdi honetan berretsi zuen korporazioak akordio hura eta horren ondoren hasi ziren Pili Untxaloren arazo hauek.

## Omenaldia Juantxo Apezetxeari

Hunkigarria eta eder-

ki merezitakoa izan zen urriaren 31n Juantxo Apezetxeak jasotako herriaren omenalditxo. Udala, Umore Ona eta elkarte honetako pilota atalaren oroigarriak jasozituen Juantxok, baita Nafarroako Pilota Federazioaren izenean

etorritako Jose M<sup>a</sup> Salanueva presidentearena ere. Nafarroako Gobernuo Kirol arduraduna den Trigo jaunak ere ez zuen galdu nahi izan lau aldiz munduko txapelduna den pilotari haundia publikoki zoriontzeko aukera.

Ilunabarreko pilota plazako funtzioak bukaera ezin hobea izan zuen gauean Umore Onan, 120 lagun elkarrekin baitziren elkarte horrek antolatutako zikiro-jatean. Egun horretan bertan herri olinpiadak ospatu ziren seinala laguneko hamaika taldek parte hartu zutelarik. Umore Onaren eskutik zetorren ekitaldi arrakastatsu hau.

## HBk antolatutako barrikotea azaroaren 28an

1.500 pezetan truke marmitako, gaztain erre eta sagardoz enpo egin nahi duenak aukera paregabea izanen du larunbatean zortzi, azaroaren 28an, Gaztetxean ospatuko den barrikotean. Ondoren dantzaldia izanen da leku berean. Herri Batasunak antolatzen du afari-festa hau.

**ARESO**

# Eskolako liburutegian ordenagailua jarri dute martxan

Eginen alde dirua biltzeko bilera ostiralean Pake-Tokin

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Herriko eskolako liburutegian ordenagailua jarri dute martxan astearte eta ostiraletan, 4etatik 7etara. Ordutegi honetatik kanpo, beharra izanez gero, baime-na eskatu beharko da.

## Gaztain biltzea eta jatea

Urriaren 30ean gaztain biltzeko deia luzatu zuen Guraso elkarteak eta San Martin egunean jan zituzten orduan bildutakoak Pake-Toki elkartearen, txistorrarekin batera.

## Eginen aldeko bilera ostiralean

Egin eta Egin irratia itxieraren aurka, dirua biltzeko kanpaina antolatu da herrian. Ostiral honetan, azaroak 20, iluntzeko 9etan Pake-Toki elkartearen egina da bilera informa-

## tiboa. Bertsolaritza ikastaroa

Euskara Zerbitzuak bertsolaritza ikastaroa antolatu nahi du Areson. Lau edo bost pertsona nahikoak izanen lirateke taldea osatzeko, beraz animatu eta apunta-

**ARANO**

## Oihan ateratzea Etzaal inguruan

Aranoko Udalak Etzaal inguruan 1.589 insignis pinu ateratzeko enkante deialdia egin du. Guzira 1.039 metro kubiko zur emanen dute zuhaitz hauek, 6.234.000 pezetan baloratuak daudenak. Proposamenak azaroaren 23ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan eta ostegunean, azaroaren 26an, zabalduko dira.

# Herriko zineak asteburu honetan hasi du denboraldi berria

Azaroaren 27 eta 29an «Titanic» filme famatua emanen dute

JOSEBA AZPIROZ

Asteburu honetan hasi da Leitzako zinemaren denboraldi berria, «*Salvar al soldado Ryan*» Steven Spielberg zuzendari famatuaren azken filme arrakastatsuekin. Igande arratsaldeko saioan, «*Flubber y el profesor chiflado*» izan ziren ikusgai.

Hemendik aurrera pelikula ikusgarriak emanen dituzte, ostiralean, gaueko 10etan eta igandetan, arratsaldeko 4,30etan eta 7etan. Asteburu honetan, «*Expediente X*» izanen dugu ostiralean eta igandeko bigarren saioan eta «*Gragoon*» lehenengoan. Hilaren azken asteburuan berriz, «*Titanic*» famatua emanen dute ostiral eta igandean. Azaroaren 29ko lehen saioan «*El hombre de la mascara de hierro*» egonen da ikusgai.

Abenduko lehen asteburuan, «*Torrente*, el brazo tonto de la ley» eta «*Un ratoncito duro de roer*» pelikulak emanen dituzte.



Zinea lanean ari da berrito. Asteburu honetan *Expediente X* eta *Gragoon* filmeak egonen dira ikusgai eta hurrengoan *Titanic*.

Argazkia: Joseba

Leitzako zine taldeak udalaren laguntzaz antolatzen duen ekimen hau udaberria bitartean luzatuko da eta joan den urtean larriei saldutako 1.791 sarrerak gaintzea espero dute. Alez

ale emanen dugu emandien berri.

**Euskararen erabilera Udalean normalizatzeko hitzarmena sinatua**

Aurreko astean, Na-

farroako mendialdeko zenbait Udal eta Mankomunitateko ordezkariak –horien artean gure eskualdeko Euskara Mankomunitatea– “Euskararen erabilpena udal esparruan normalizatzeko Nafarroako Gobernuaren eta toki erakunde zenbaiten arteko lankidetzaren hitzarmena” sinatu zuten. Hitzarmena lau urterako da eta besteak beste, udalen jabetzako euskal komunikabideak finantzatu eta indartzeko eta Euskara Zerbitzu eta teknikariak finantzatzeko dirulaguntzak ziurtatzen ditu.

Horretaz gain, hitzarmena honako iharduera hauetara hedatzen da: euskararen erabilpena eta euskal kultura sustatzea udaletako gizarte bizitzan; entitate publikotako langileen araudia eta euskalduntze prozesuak; administrazioaren iharduketa indarrean den hizkuntza araudiari egokitzea; azterlanak eta ikerketak lanak egitea...

Helburu guztiak bez bez gero, ez da gutxi!

## flash

### Antzerki-dantza saioa zinean larunbatean

Larunbat honetan, azaroak 21, arratsaldeko 8etan, herriko zinemaren, Atarrabiako Mikelats taldeak «*Amaia*, VII. mendeko euskaldunak» antzerki-dantza saioa aurkeztuko du.

### Oihan ateratzea Urdolan

Eraso zerrategia enpresak aterako du Urdolako izei gorrien lotea –sesteorik ez bada behintzat–. Horretarako sei hilabeteko epea izanen du. Lotearen oinarritzko prezioa 4.320.000 pezetakoa zen eta Erasok 4.370.000 pezeta eskontu zituen.

### Herri lurren erabilera arautzeko

proiektua egiteko lehiaketa zabaldu du Nafarroako Gobernuak. hasierako aurrekontua 21 milioikoa da eta astelehenen bukatu zen proposamenak aurkezteko epea. Dokumentazioa, proposamen teknikoa eta ekonomikoa aztertu ondoren emanen dira lanak.

Urtebeteko konexioa gehi  
posta elektronikoko helbidea:  
**10.000 Pta. + BEZ**

# KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu orain. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan.

Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

**(+34) 948 631188**

# Balleko Etxeak duen zorra %12an jautsi da aurten

Azkeneko hogeita bortz urteotako zorrik tikiena du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Balleko Udalak %11,92ra jautsi du bere zorra, diruzaintza zerbitzuak egindako txostenaren arabera. Gaur egun, azkeneko hogeita bortz urteotan izan duen zorrik tikiena duela erran nahi du honak. Txostenaren arabera, egoera «nahiko ona da» eta zorraren maila «udal erakundeak jasaten ahal duena (%24,74)baino dexten baxuagoa da».

Patxi Oiartzabal alkate kontent ageri da udal kuxtaren egoerarekin. Bere erranetan, «Kontu Ganbararen gomendioei segituz lortu da zorra jaustea. Egoera ona da, baina ongi planifikatuz eta inbertsioak kontrolatuz lortu da».

Ageri denez, Balleko Etxearen diru egoera osasuntsua da. 1997an krediturik ez zuen eskatu Udalak eta horrek ere lagundu du. Halere, Patxi Oiartzabalek dienez «martxan zeuden inbertsioak ez dira gelditu. Balleko hamabortz herrietan aurrikusiak zeuden lanak egin dira, gehien bat karrika eta auzoen zolaberritzeari dagokionez».

Aitzinera begira, modu beretsuan segitzeko



## Uruguako Iturria senadorearen bisitaldia

Raul Iturria, Uruguako Defentsa Ministro ohia eta errepublikako senadorea Etxalar eta Baztanen ibili zen azaroaren 4an. Iturriaren arbasoak –Iturria eta Iriarte– nafarrak ziren, nahiz eta ez dakien segurongoak. Raul Iturriarekin batera bere emaztea, Uruguako Armadako koronela eta Rafael Gurra, Nafarroako Gobernuako lehendakariordea etorri ziren. Elizondoko Balleko Etxea eta 1212ko ikurra ikusi zituen. Mitxeltona etxeko Iturria sendia bisitatzeko ere probextu zuen eguna.

Argazkia: Ondikol

asmaoa dute udalean. «Hirurteko Planean sartu ez diren lanak Udalak egin ditu eta egiten ditu hemendik aitzina ere».

Aurtengo udal aurrekontua 1.000 milioikoa da. Honi ikastolaren 54 milioiak eta Francisco Joaquin Iriarte erresidentziaren 171 milioiak gehitu behar zaizkio. «Egoera ekonomikoa ona da, baina kontu handiaren segitu behar dugu» alkateak dioenez.

## Arraiozko saihesbideak kaltetutako lur eta ondasunen jabeek aktak jasoko dituzte azaroaren 19an

N-121-B errepideari Arraiozen eginen zaion saihesbideak kaltetutako lur eta ondasunen jabeek azaroaren 19an gan beharko dute Balleko Etxera, aktak biltzera. Horrelaxe dio Jose Ignacio Palacios Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamen-

duko kontseilariak urriaren 28an sinatutako Foru Aginduak.

Kaltetuek pertsonalki gan beharko dute –edo bera ordezkatzeko duena behar bezala identifikatua agertu–, ondasunen jabe dela ziurtatzen duten paperak eramanaz (eskriturak, ziurtagiriak...).

## flash

### ❖ **Aparkaleku arazoa Arraiozen**

Arraiozko kamioilariak beraien ibilgailuak aha duten lekuan aparkatzen dutela eta, herriko alkateak, pilotalekuaren behealdean, errepidearen ondoan aparkalekua moldatzea eskatu du. Nafarroako Gobernuak ibilgailu astunendako aparkalekuak egiteko deialdian sartzea eskatu dio Balleko Etxeari.

### ❖ **Baztan Ikastolaren behorra**

2280 zerbakiari egokitu zitzaion Baztan Ikastolak Elizondoko Feria Egunean zozketatutako behorra. Dagoeneko jabea aterata da, Oronozko Pierresenea ostatuak hain xuxen. Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten guzietan.

### ❖ **Eguberritako sei plater berri**

ikasteko sukaldaritzak ikastaroa burutuko da Elizondoko Urpe elkartean Dani Arriada irakaslearen erranetara. Ikastaroa hiru eguneguz eginen da, azaroaren 18, 20 eta 25ean, arratseko 7etatik 9etara. Argibideak eta izen ematea Baztan Balleko Etxean egiten ahal da, horretarako 2.500 pezeta ordainduz. Egiten diren platerak ikasleek beraiek dasatuko dituzte.

**BAZTAN OPTIKA**  
 ORDUTEGI BERRIA:  
 Egunero  
 goizeko 9,30etatik 1,30etara eta  
 arratsaldetan, 4,45etatik 7,45etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

**ARROPA DENDA**

**Gazteendako era guzietako arropa**

**Lanerako arropa**

*Esquisaroi jatetxea*

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
 ELIZONDO



**BAZTAN**

# 68 margolari aritu ziren Erratzuko bazterrak margotzen

Etxelebertzeko Txokoak antolatutako lehiaketa arrakastatsua izan zen

TTIPI-TTAPA

Hirutan hogeitazortzi margolarik (42 heldu eta 26 haur) parte hartu zuten Erratzun, Etxelebertzeko Txokoak seigarren urtez antolatutako margo lehiaketan. Jokin Telleria beasaindarra izan zen Erratzuko txokoak margotzen onena epaimahaiaren ustez eta 60.000 pezeta sakeleratu zituen. Bigarren saria (30.000 pezeta) Barañaingo Mikel Costarentzat izan zen. Haur guziek margotzeko materiala jaso zuten saritzat.

Antolatzaileek ez zuten horrenbertze partehartzailerik espero, baina ustekabea aisa moldatu zuten: «*ilar gehiago paratu eltzean eta listo!*». Ilar gorriekin batera, oilaskoa eta gasna izan zuten otorduan. Haurrek, berriz, makarroiak izan zituzten ilarren ordez.

Nafarroa eta Gipuzkoatik etorritako margolariekin batera eskualdekoak ere Erratzun izan ziren. Bertzeak bertze, Berako Oskia Peru-



## Onddo erakusketa Amaiurren

Azaroaren 4an, Amaiurko eskolako neska-mutikoei prestatutako onddo erakusketa ikusgai egon zen Amaiurko eskolan, Aste Mikologikoaren barnean. Haurrek gustora erakutsi zituzten basoan bildutako *altxorrak*.

Arg.: Maite Oteiza

rena, Iruritako Ana Villoria, Narbarteko Eva Irazoki edo Elizondoko Elisa Muñozek beraien margolanak egin zituzten.

## BERTSO AFARIA LARUNBAT HONETAN

Etxelebertzeko Txokoak udazkenara begira egiten dituen kulturekitaldiek segida izanen dute larunbat honetan. Bertso afaria izanen da elkartean eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin batera, Bankako kantariak ariko dira kantu zaharrak

abesten. Zopa, aretzea saltsan, gasna eta menbrilloak osatuko dute 3.000 pezetako otordua. Aitzinera begira, Ruper

Ordorikaren kontzertua eta baztan zopa eta postre lehiaketa antolatzeke asmoa dute Etxelebertzekoek.



26 neska-mutikok parte hartu zuten Erratzuko margo lehiaketan

Argazkia: Ondikol

## flash

### 2,8 milioi pezeta bildu ziren Elizondoko urriko ferietan

Elizondoko herriak 2.800.000 pezeta bildu zituen urriko ferietan, saltzaileen ezartzen zaizkien tansen bidez. Aurten 170 postu paratu ziren, iaz baino gutxiago, baina leku berdintsua ihartu zuten. Kontuan hartu behar da, saltzaileek metroko 2.500 pezeta ordaintzen dituztela. Elizondorentzat urteko sarreraren %40a da ferietan biltzen dena.

### Zeberia erreka ur-etorria

neurtzeko estazioa jarriko du Nafarroako Gobernuak Herri-lan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak.

### Euskarazko produktuen Katalogoa

prestatu dute Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek. Baztangoa ere hasi da eskola, institutu eta zenbait etxetan katalogoa banatzen. Gaur egun merkatuan aurkitzen ahal diren euskarazko produktu guzien berri ematen du liburuak.

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, © 948580939  
ELIZONDO

**UDAZKENEKO ARROPAK**  
Trajeak, jertseak, galtzak,  
gonak, berokiak...

**ESKULANGINTZAKO MATERIALA**

**IZASKUN**  
MASAIA ZENTRUA

- Kirol Masaia**  
• Besoa, ukalondoa, belauna, zurmia
- Bizi masaia**  
• Zerbikalak, lunbarrak
- Erlajazio masaia**  
• Gibar kontrakzioak

© 948 581 399  
Aita Donostia, 9 - I. ez. • ELIZONDO

**La Asturiana**  
ostatu • jatetxea

Tfnoa: 948 58 04 63  
Santiago 51, ELIZONDO

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**SARA**

# Santa Katalina ohoratua izanen da Olhaldeko kaperan azilaren 22an

Euskal Antzerki Talde Amauteurren Topaketa asteburu honetan egingen da

MIXEL ETA JACQUELINE

Urtero bezala Santa Katalina ohoratua izanen da azilaren 22an Olhaldeko kaperan. Besta mezperetik hasiko da Ihalar auzoko Baratxartea jatetxean, tripotx jatearekin. Ez da dudarik usaiaiko erre-kista ukanen duela gau honek.

### Plaza inguruaren berritzea

Jadanik aipatua dugun bezala erreboteko obrak hasiak dira eta aintzinatzen ari dira. Bainan zoritxarrez harritzko jarlekuak puska batean lehertu dira eta ezbehar honek lanen epea luzatuko du.

### Usategiak

Omniasainduz, usategietako sareak alde bat bilduak izan dira. Aurtengo ihizi sasoina



Gaztain lepoko ihizi etxolan

ez da hain ona izan, bainan azken egunetan, eguraldia lagun, zenbait uso hartuak izan dira. Nahikoa iduriz heldu den larrazkenean aspal-diko ohidura hunen jarraitzeko.

### Gure apeza gaixorik dago

Mixel Idiart herriko apeza osasun arazo bazuengatik atsedean etxe batean dago, bainan igandetan herrira itzultzen da mezaren ema-

teko. Lerro hauen birtartez, ahal bezain laster bixkortzea desiratzten diogu herritar guzienen izenean. Anartean, elizaren beharra delarik Senpereko parropira dei egin behar da.

### Euskal Antzerki Taldeen Topaketa asteburuan

Asteburu honetan, Saran, Euskal Antzerki Talde Amauteurren Topaketa egingen da, Zirimolan Kultur Hamabostaldien barrenean. Larunbat eta igandean Omordian eta karriketari bi mintzaldi aditu eta borts antzerki lan ikus ahal izanen dira, A.M. Labaien omezez. Larunbat goizeko sarrera hitzaldiaren ondotik "Petrikillo" antzeslana egingen da ikusgai. Eguerdian "Goizeko izarra" antzeslana ikusgai egingen da. Arratsaldean, Ereintza taldeak "Urkiola" eta Kalakariak taldeak "Luma beroak" antzeslanak eskainiko dituzte. Igande eguerdian Ekekeiren "Hiltegia" eta Xirristi Mirristiren "Bereharta" antzestuko dira.

  
**OSTATU - JATETXEA**  
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**ttipi-ttapa internet**  
**helbide berriak**   
 Internet: [jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa](http://jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa)  
 E-mail: [ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

*Okindegia* *Jatetxea*  
**Uxoa**  
 Polig. Ind. Urbakal Tfn. (948) 82 34 03 FAX (948) 82 34 03  
 • Okindegian  
 • Ogi artisaua, eguneko eta txapata  
 • Jatetxean  
 • Menua eta karta (asteburuetan)  
 • Espezialitate parrilan erretako jakietan

*Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen erreka. Goxo-goxoa!*



**SOULE**  
**Hileta artea**  
 Tfnoak: 948 453444 • 908. 779903  
**ARIZKUN**




## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

**NA-4401 errepidea moldatzeko lanekin kaltetutakoek aktak bilduko dituzte abendu hasieran**

TTIPI-TTAPA

Dantxarineatik Zugarramurdira doan NA-4401 errepidearen zabaltze eta moldatze lanekin kaltetutako lur eta ondasunen jabeek abenduaren 1 eta 2an gan beharko dute Herriko Etxera, aktak biltzera. Horrelaxe dio Jose Ignacio Palacios Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduko kontseilariak urriaren 28an sinatutako Foru Aginduak.

Kaltetuek pertsonalki gan beharko dute edo bera ordezkatzeko duena behar bezala identifikatua agertu, ondasunen jabe dela ziurtatzen duten papearak eramanez (eskriturak, ziurtagiriak...).

### **ABUZTUAN ONARTUTAKO PROIEKTUA**

